



## OSTATU MAHAIA / MESA DE ALOJAMIENTO

2020ko irailaren 14a

### GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena
2. Eredu berria aurkezteko bideoa: [ForoConsultivo-Getxo-CASTELLANO.mov](#)
3. Ereduaren azalpena: PPT [Presentación mesas Hosteleria Comercio.pptx](#) /  
Osagarria: [Suplemento Foro.pdf](#)
  - a. Helburuak eta funtzioak
  - b. Komunikazioa
  - c. Kronograma
4. Sektorearen egoera eta hobekuntza eta/edo proiektu proposamenak.

### BERTARATUTAKOAK: (% 37,5)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	AUSENTZIAK	
			Justifikatua k	Justifikatu gabeak
Ostatu sektoreko ordezkaria eta Neguri hoteleko gerentea	Javier Angulo	X		
Embarcadero hotela	Barbara Anasagasti			X
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui		X	
Igeretxe hotela	Nagore Saiz			X
Artaza hotela	Joseba Oribe		X	
Areeta pentsioa	Jose Miguel Pérez	X		
El Abra pentsioa		X		
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés			X
Getxoko Udala – Sustapen Ekonomikoko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		



## EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Enpresen eta udalaren arteko elkarrizketarako eredu berria aurkezteko bideoaren proiektzioa.
3. Udal teknikariek helburuak, funtzioak, komunikazioa eta kronograma aurkeztu dituzte.

### 3.1.- Helburuak eta funtzioak:

Sektore mahaietan azalduko dira sektoreak berak proposatutako proiektu guztiak, sektorearen interesekoak direnak edo estrategikotzat jotzen direnak.

Proiektuak martxan jartzea eta behar bezala gauzatzea zainduko dute kideek eta sektoreko beste batzuek, proiektuak pilotatzeko batzordeetan.

### 3.2.- Komunikazioa:

Helbide elektronikoak ahalbidetuko dira sektore bakoitzeko proposamenen berri mahaiko eta lantalde teknikoko kide guztiek izan dezaten.

Eta zabalpenerako ekintzak egingo dira, helburutzat izango dutenak mahai berria eta bertako ordezkariak ezagutzera ematea.

### 3.3.- Kronograma:

Kronograma azaldu da eta beharrezko azalpenak eman dira mahaien proposamenak urteko aurrekontuen onespenerarekin denboran lerrokatzearen garrantzia ulertzeko.

Proiektuak landuta, lehenetsita eta kontraste politikoko mahaian kontrastatuta egon behar dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuetara aurkeztu ahal izateko.

Adierazi da, halaber, aurrekontu bat egongo dela ekitaldi berean proiektuak egin ahal izateko; ekintza txikiak baina esanguratsutzat jotzen direnak eta aukerako edo premiazko proiektuak.

4. Sektorearen egoera eta hobekuntza eta/edo proiektu proposamenak.

4.1.-Bertaratutakoek egungo egoera azaltzea: Bat datoz turismo-sektoreak eta, bereziki, ostatuaren esparruak bizi duten egoera kritikoan:

- ✓ % 50 inguruko okupazio-tasak (batez ere nazioarteko turistarik eta ekitaldirik ez dagoelako)
- ✓ % 30eko errentagarritasuna (egoera salbatzeko promozioak egin dira prezio bereziekin)
- ✓ Erreserben kudeaketa azken unean (pandemiaren bilakaeraren eta zabaltzen diren albisteen arabera, positiboan zein negatiboan...)



#### 4.2.- Hobetzeko proposamenak eta/edo proiektuak:

- (a) Finantzaketarako laguntza, informazioa eta laguntza eskatzea.
- (b) Bezeroak erakartzeko sustapen-kanpaina handiak (tokikoa baino eremu zabalagoan).
- (c) Dagoen eskaintza (planak) gehiago zabaltzea eta sektorearen eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzea.
- (d) Sektoreari zuzendutako informazio-bideak aldatu direla jakinaraztea (ez turismotik, lehiakortasunari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, sustapen ekonomikotik baizik). Turismok gurutzaontziak bakarrik komunikatzen dituelako ustea dute. Estrategia azaltzea.
- (e) Tokiko zerga eta tasen ordainketa gutxitzeko eta/edo malgutzeko aukera baloratzea.

#### 5.- OSTATU-MAHAIAREN ERABAKIAK (2020/09/14):

<b>AKORDIOAK/EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>	<b>DATA</b>
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020-10-05
2. Protokoloa baloratzea, finantzaketa-bideetarako laguntzan sorosteko aukera (ICO, ELKARGI...).	Udal teknikariak	2020-10-30a baino lehen
3. Turismoa sustatzeko kanpainen xede- publikoa handitzeko aukera baloratzea eta ostatu-establezimenduetarako berriazko zerbitzu jasotzea	Udal teknikariak	2020-10-30a baino lehen
4. Turismo-enpresei Sustapen Ekonomikoko Arloaren komunikazio-estrategiaren berri ematea, eta estrategia horrekin leiala izatea, enpresei nahasmenik ez eragiteko.	Sonia	2020-10-15a baino lehen
5. Tokiko zerga eta tasen ordainketa gutxitzeko eta/edo malgutzeko aukera helaraztea arlo ekonomikoari.	Sonia	2020-10-09a baino lehen